

Koldo Aldalur

KAZETARIA

Formula berria

Ikusiko dinagu gainontzeko taldeek ere difusorea jartzen dutenean zer gertatzen den. Kersak, irteeretan eta aurreratzetan abantaila ematen din, hori ez zegoen ukatzerik. Neumatiko ekologikoak zamazkin, ez al dun arraia berde hori ikusten...?”. Elkarrizketa hau gure etxepeko tabernan entzun nuen, Australiako 1 Formulako sari nagusia jokatzen ari zela. Seko harrituta geratu nintzen. Ziurtasun horrekin hitz eginen ari zen emakumeak hirurogeita hamar urte gertu xamar ditu, eta nik dakidanez, kirol honekin inongo harremanik ez du sekula izan; orain arte.

1 Formula erosi berri duen telebista kateak oso programa ona egiten du semaforoa amatatu aurretik. Gero ere bai. Bezperan sailkapena, bezperaren bezperan entrenamendu libreak, bideo landuak, simulazioak, ibilbideko bihurtune bakoitzak eskainiko dituen zailtasunak, kotxe bakoitzak daraman gasolina kopurua, ondorioz zenbat geldidune egin behariko dituen, estrategiak... Dena, hori bai, era didaktikoan, erraz ulertzeko eran, alegia. Helburua argia da: gure etxepeko tabernan iganderoko bazkalareko txakolina hartzera biltzen direnek senti dezatela zerbait badakitelarik orain arte hain arrotza zuten kirolaz. Datuetan oinarritutako komentarioak, bada-kizue, beti ematen du jakitun itxura.



DANI BLANCO

Bazkalostean binakako pilota txapelketaren finala. Hiru egun lehenago, Juan Irujok eta Fernando Goñik kristorenak bota dituzte, ustez, Aimar Olaizolak eta Oier Mendiabalek aukeratutako pilotak horrelako final baterako motelegiak direlako. Saskitxoan bost pilota, eta seigarrena jokoan. Eta ikusleak ezin jakin azken hau al den eztabaidaren sua piztu zuena.

Diotenez, orokorrean informazio gehiegi jasotzen dugu, eta informazio uholde horrek itoko omen gaitu. Ez nago ados. Informazio hori nola ematen den da gakoa.

Orain urte batzuk ikusten genituen kirol emanaldiak ikustea aski da hobekuntza handia izan dela oharatzeko, baina badago zer hobeturik.

Agian, kirolarien soldata ordaintzen duten enpresek jabetu beharko lukete saldu beharreko produktua dugula esku artean. Oso zaila al da pilota bakoitzari zenbaki bat jartzea, eta, aldatzean, epaileak kantxan izango den pilota berriaren zenbakia jakinaraztea? Beste saltsa bat izango genuke, eta gure etxepean biltzen direnek motibo berria kirolari buruz berriketan jarraitzeko.

Enpresak aipatu ditut, baina federazioak, kazetariok, epaileek eta pilotazaleek ere badute zeresana.

A! Eta zer demontre dira ker eta difusoreak? ■

«
Diotenez, orokorrean informazio
gehiegi jasotzen dugu, eta
informazio uholde horrek itoko
omen gaitu. Ez nago ados.
Informazio hori nola
ematen den da gakoa
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Hamalau honetan, Aberri Eguneko ajeaz dihardu prentsak Errepublikari buruzko aldarriaz mutu. Igandean, Irungo Ficoba ondoko Gal Stadiumean kadete mailako Lopez Ufarte Futbol torneoko finalerdiak jokatzen ziren. Lehen partida ikusten aritu nintzen. Espainian ginen. Ez nuen euskaraz deus ikusi, ez txarteletan, ez publizitatean, eta megafoniak gaztelandian kokatu ninduen. Bertako bi taldeen (Dumboa eta Reala) jokalariek gogarazi ninduten Gipuzkoan ginela, “eman”, “sartu”, “ez utzi” entzun bainien. Athleticeko bik, Frantzia ere erakarri zuten bertara “bûche, bûche” elkarri oihukatzen ziotelarik. Lehen

Apirilak

zatia bukatu eta, Ficoban ez ohiko mugimendua zebilen, jendea saldoka bertako atarian. “Zer ote dago han?”, gaztelera batuan batek. Ilegalen kontzentrazioa erantzun zion ondokoak, informatuta zegoenak ezpainak xolomoaren koipez bustita. Harantz egin nuen. Eguerdian abiatu ginen Santiago zubitik Hendaiara. Ez denak, debekurik zuenik ere bai baitzegoen tartean. Zubiz bestaldean, zain, Irunera joan ezineko andana. Aspaldiko Aberri Egun jendetsuena iruditu zitzaidan. Eta Gal Stadiumean otartekoa jaten utzi nuenak arrazoia zuela baieztatu nuen: ilegal gehiegi dago gure artean oraindik deusen onerako. Legalek ez dute gaurko egunean ezer ospatu, Erresuman bizi dira. ■